


Astekaria

# BARRREN

elgoi




## Pailasoak Aubixan

**GARATE**

JANTZI - DENDA

*Larunbat arratsaldetan  
zabalik*



## 3 LAU HANKATAN

"Zerbaiten aurrean iritzia eman, eta arrapaldan etorriko zaizkizu denetariko txartelak jartzera". **Diana Perez de Albeniz**

## 6 ERREPORTAIA: SUDUR GORRIA IPINI ETA...

Bergarako "Oihulari Klown" antzerki taldea, zenbait ikastaro burutzen ari da Aubixa barnetegian pailzo eskolaren baitan.

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: HIL ONDOREN LURPERATU ALA ERRE?

**Alazne Ezkurra:** "...atseginagoa zait pentsatzea, momentua heltzean, naturaren parte izango naizela..."

**Ane Goikoetxea:** "...behar bada ez dago gaizki 'lurretik zatoz eta lurrera zoaz' esaten zaigun esaldi hori kontutan izatea".

## 12 BERBETAN: Eulogio Astigarraga

"BELDURRA EZ, BAINA ERRESPECTUA BAI"

## 14 KIROLA

GAIA: HASI DA HAURRENTZAKO IGERIKETA KANPAINA

ELKARRIZKETA: **Angel Garcia**

## 16 ELKARTEETATIK BUELTAN

TXANKAKUA: ZERBITZU ETA MERKATARI ELKARTEA

## 17 KULTURA

EUSKADIKO GRABATZAILE FAMATUEN ERAKUSKETA KULTUR ETXEAN

TXANDAK

### FARMAZIAK:

30, larunbata: YUDEGO

31, igandea: YUDEGO

1, astelehena: BIDASOLO

2, asteartea: BIDASOLO

3, asteazkena: BIDASOLO

4, osteguna: BIDASOLO

5, ostirala: BIDASOLO

### OKINDEGIAK:

31, igandea: EIZAGIRRE

1, astelehena: FOTERO



## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak .....740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria .....743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa) .....7410 08

Odol Emaileen elkarte.....741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....740442

PESA (Eibar) .....112131

Taxi Geltokia .....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala .....756100

Ongizate zerbitzua .....743736

Udaletxea .....741050

Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142

IMI .....741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) 743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea .....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....740296

Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua .....74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Argitaratzailea**

Elgoibarko Izarra

**Laguntzailea**

Elgoibarko Udala

**Zuzendaria**

Alberto Agirreazaldeg  
**Hizkuntza Arduraduna**

Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**

Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**

Maite Rementeria

**Publizitatea**

Nekane Etxaniz

**Administrazioa**

Josune Fernandez.

M. Angeles Ortuoste

**Kolaboratzaileak**

Myriam Aldazabal, Alberto  
Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin  
Arregi, Belen Arrizabalaga,  
Berto Eskola, Agur Miren  
Barandiaran, Hasier Etxeberria,  
Ina Garagarza, Maite Iriondo,  
KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor  
Lodoso, Nerea Lodoso, German  
Meabebasterretxea, Jasone  
Osoro, Diana Perez de Albeniz,  
Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

**Banaketa arduradunak**

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

**Inprimategia**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.

**LAU HANKATAN**



**Diana Perez de Albeniz**

# Zein koloretakoa da zure txartela?

"**N**irekin ikasten ari zen lagun baten pisuan nengoela, han non ikusi nuen lurrean labazomorro bat pasiaran. Handik azaltzen nintzen lehen aldia izanik, ez nintzen ausartu haren burua txikitzen, agian lagunaren maskota edo izan zitekeelakoan; batek daki, bitxikeria anitzerako jendea ere bada. Lagunaren sorbalda ikutuz, - aizu, labazomorro bat dabil lurretik - esaten bukatzeko denborarik utzi gabe, eskubiko zapatila kendu eta plaut! tripak hustu zizkion - aah!! - tinpanoa dantzan utzi zidan garraisi bat botatzearekin batera. Gero, lasaiago, - begira, agian zuretzat labazomorroak eguneroko gauza bat dira, baina niri kriston nazka ematen didate-hitzekin bere jokaera azaltzen ahalegindu zen.- Bai, noski, ni halako artean lo egiten ohituta nago-".

Horrela kontatzen zidan Londresen ikasten ari zen Somaliako tipo batek. Labazomorro hiltzailea ere beltza zen, baina Afrikan ordez, Ingalaterran jaioa.


Hemengo inguruetan bere kolorekorik ia ez zegoela adierazi nionean, horrelako gutxiespen adibiderik ez nuela izango suposatu zuen. Baina, beltz klaseak egite-rik badago, zergatik ez zuri klaseak ere? Gainera, banaketa egiteko moldeak aldatuz besterik ez doaz; ez al dezute inoiz gizartearen aurrerapenaz ezer entzun?

Hori berori dugu "progresoa" delakoa.

Lehen euskaldunak eta erdaldunak ginen, orain A, B edo D ereduak. Orain urte batzu, ikasketa unibertsitarioak burutu zituztenek iturgin eta arotzei goitik behera begiratzen zieten arto; orain kontu korronteko estraktuari inbiriak. Gauzak aldatuz doaz bai, baina beti dago non asetu gure klasifikatzeko beharra. Polikromia ez bada, ba polimorfismoa orduan, edo batek daki zer. Taberna hauetan dabiltzanak eta beste horietara joaten direnak, musika hau beharrean hori gehiago atsegin dutenak. Gauza zera da, bakoitzak bere identifikapen txartela soinean eramatea, karnetan daramagun zenbakiarekin nahikoa izango ez bagenu bezala.

"Ba ez, guk ez daukagu kolore diferenteko jende aukera zabala, baina, hori bai, partidu politiko sorta oparoa inon ez bezala. Gainera, batekin edo bestearekin identifikatzeko zailtasunik badaukazu, zu lasai, egiten dute besteek zuegatik. Trukoa honakoa da: zerbaiten aurrean zure iritzia eman, eta arrapaladan etorriko zaizkizu denetariko txartelak jartzera. Erraza, ezta? Horrela, aurretik zure tokia non zegoen argi ikusten ez bazenuen, klasifikazio prozesu horren ondoren ondo baino hobeto txokoratua geldituko zara. Horrelakoak gara han, beti besteari laguntzeko prest."

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



**Urte bukaera eta gero zer?**

Haur Eskola baten beharra oso garrantzitsua da herri baterako, batez ere herri horren eskaerak bete ahal izateko. Gure ustez, Haur Eskola zerbitzu publiko bat izan beharko litzateke, emakume langileen beharrei erantzuna emateko, emakumea lan munduan erraztasun gehiagoz murgiltzeko. Umeek nortasun egoki bat lor dezaten, emakumeak haurra ordu batzutarako utzi beharra duenean bertan uzteko aukera edukitzea, kuotarik ez ordaintzea...

Elgoibarko Udalaren (PNVren) filosofia herriko zerbitzu publikoak gorde-tzearena bada, eta haur

Eskolaren ardura hartu badu, Haur Eskola honek publikotasunaren antzik ez du.

Zein Haur Eskola publikotan ordaintzen da 23.000 pezetako kuota?

Eta jakinik urtarriletik aurrera Haur Eskolaren gestioa enpresa pribatu baten eskutara lehiaketatuko dela, zein zerbitzu publikoren filosofia azaldu nahi digute?

Elgoibarko Emakume Talde bezala, Haur Eskola Publiko eta municipal baten alde borrokatuko dugu.

Honi buruz kaleratuko den hainbat ekitalditan parte hartzera animatzen zaituztegu.

**Elgoibarko Emakume Taldea "Andraize"**

**Mintxeta guztiona da**

Pasa den astean orrialde honetan azaldutako Mintxetako pistaren erabilerari buruzko idatziari erantzunez, gazte horiei esango nieke, gizartean arauak denon artean jartzen ditugula eta Mintxetan ere beharrezkoak direla arau hauek, guztionak diren instalazio hauei ahalik eta etekin gehien atera diezaiegun.

Ez diot zentzurik aurkitzen, zapatilekin egon arren, bakeroekin pistari bira bat edo bira erdi ematea, are gutxiago lagunartean, guztiz euforiko, burruketan edo jolasean pista barruan egoteari.

Gazteek eta helduek

errespetu berdina merezi dute eta, argi eta garbi eduki, nagusi kuadrila bati, Mintxetako kafetegian potetzen dagoela, penalti batzuk botatzeko gogoazartzen bazaio, apostuak direla medio eta zapatilekin aurkitu arren, ez zaiola utziko futbol zelaian sartzen.

Mintxetako instalazioen arduradun bezala, lerro hauen bidez zera gehitu nahi dut: ez dugu ahaztu behar instalazio hauek helburu batekin eraiki zirela, kirola herritarrei hurbiltzea, hain zuzen, eta beraz, berauek odo zaindu eta mantentzeko, denon laguntza behar dugula, arauak errespetatuz.

1993eko urriak 25

**Udal Kirol Teknikaria**

**GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**

**CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak**

**Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Igualatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.**

- ▷ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▷ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▷ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▷ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▷ Menopausiaren tratamendua

*Guzti hau Eibarren bertan urrutirago joan gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11  
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)  
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR



AZKUE

**A**ste honetako erretratua Roman “Galbuso”k lagatakoa da. Erretratua 1959. urtean Sallobenteko elizaren ormaren kontra ateratakoa.

Romanek esan digunez, 1924. urteko kintakoek egindako ospakizun batean ateratakoa da. Erretratuan azaltzen direnetatik pare bat baino ez omen daude gure artean; Norbertok eta Ramonek ez omen dute hemendik alde egiteko presarik eta gustura bizi omen dira 90 urteek ematen duten patxadarekin.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen duten elgoibartar kuadrila hau:

Ezkerretik eskumara, goitik hasita:

1. ilaran: **Patxi Lazarobaster, Jose Maria Mugu-ruza, Jose Alberdi “Olantxo”, ?, Jose Mari “Iru-naso”, Andres “Borrajén”, “Ziarda”, Norberto “Galbuso” eta Ramon Galdos.**

Eserita: **?, Migel “Urain”, Jose Mari “Txikixa”, Justino Arakistain, Justo “Artazo”, Prudencio Arozena, Nikasio “Aristi”, Arrixa eta Martin Landa.**

— AGUAS —  
**ALZOLA**  
— URAK —

## Logopedia Zentroa



**Isabel Gil Arrocha**

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

**Bidebarrieta, 27-B  
Tel. 11 84 71  
EIBAR**

# Sudur gorria ipini eta...

Irribarrea nola sortarazi erakusten ari dira Bergarako "Oihulari Klown" antzerki taldekoak. Elgoibarko Aubixa barnetegian zenbait ikastaro burutzen ari dira pailazo eskolaren baitan. Klown edo pailazo eskolak urtebete bakarrik darama Aubixan baina duela bost urte hasi zen funtzionatzen. Klown ikastaroetan edonork har dezake parte eta adin guztietako pertsonak, 17 urtetik 60 urte bitartera, aritu dira Klownaren teknikak ikasten. Pailazo eskolaz zertxobait gehiago jakitearren, taldeko kide den Virginia Imazekin aritu gara hizketan.



↳ Melo Ruiz eta Marilu Albizu Klown eskolan hasi ziren eta egun obra bat antzesten dute.

**Jose** Karmelo Muñoz eta Virginia Imaz klown ikastaroen arduradun eta irakasle dira. Iaz 170 pertsonak jardun zuten Aubixan plastikozko sudur gorria aurpegian jarri eta bakoitzak barruan daraman klown-a deskubritzen. Emakumezkoak gizonetzkoak baino gehiago izaten dira kopuruz eta badago, hain zuzen ere, emakumeei zuzenduriko ikastaro bat. Klown klaseetan parte hartzeko ez da derrigorrez antzerkizale izan behar, ezta aktore

ere. Askorentzat, terapia moduko zerbait da eta beraien emozioak espresatzen ikasten dute, beti umorea oinarriztat hartuta. Pailazoaren irudia ez da zirkoko pailazoaren irudira soilik mugatzen. Gainera, ez da

---

**Klown hauek ez dizkiete elkarri tartak botatzen, ez dira lurrera erortzen eta zaplastekoaren ondorioz barre eragiten**

---

haurrentzat eginiko zerbait, helduentzako lan egiten duten klown-ak dira. Hitzak duen tonu ezkorra galdu egiten da erabat. Klown hauek ez dizkiete elkarri tartak botatzen, ez dira lurrera erortzen eta zaplastekoaren ondorioz barre eragiten. Ikastaro hauetan noberaren sentimenduekin jokatzeko irakasten da; eskenatokira irten eta momentuan sentitzen denari buruz inprobisatuz, barrea eraginez besteegan. Inprobisazioa oinarrizkoa da. Ez da ezer inoiz aurretik pres-

## Hastapen ikastaroak

Hastapen ikastaroa I

**NOIZ:** azaroak 6 eta 7

**NON:** Aubixa

**ORDUTEGIA:** Larunbatetik (10h)-Igandera (19h)

**PREZIOA:** 4.000 kurtsoa, 3.000 egoitza

**HARREMANETARAKO:** (943) 76 02 55 (Virginia Imaz)



tatzen eta eskenatokira igotzen denak inprobisatu egin behar du.

Irakasleak, asistente sozialak, taldeko animatzaileak eta antzerako profesionalak dira Aubixako klown eskolan jarduten dutenak. Tailer hauetan dozena bat inguru lagun biltzen da aste-bukaera bakoitzean.

Sudur gorri txikia, klown-aren ezaugarriak ezagunena, erabiltzen duten maskara bakarra da. Sudurrak zeharo aldatzen du pertsonaren aurpegia eta berau jartzeko gorpuzak beste energia bat jasotzen du. Begiak ere, oso garrantzitsuak dira. Begi ireki eta handiek ezustea adierazten dute. Izan ere, klown-aren ezaugarria, egunerokoa zerbait berri eta arraro bezala jasotzea da.

Hastapen ikastaroen gain, etengabeko formazio zikloak ematen dituzte. Monografikoak deitzen direnak, gai jakin

batzuen inguruko zikloak izan ohi dira: emakumearen zikloa, klown eta ahotsa, klown eta dantza, klown eta publizitatea... Guztira 26 astebukaera programatuta dituzte aurtengo ikasturterako.

Klown eskolaz gain, pailazo saioak antolatzen dituzte Oihulari Klownek. Saio batzuk Aubixan egiten dira astebu-

---

**Sudur gorri txikia, klown-aren ezaugarriak ezagunena, erabiltzen duten maskara bakarra da.**

---

ruetan eta formazioek bakarrik har dezakete parte. Hiru hilabetetik behin, berriz, Pasaian, formazio zikloak eta hauen lagun zein senitatekoek parte har dezaketen saioak antolatzen dira. Esperientzia ikara-



Virginia Imaz eta Jose Karmelo Muñoz dira irakasleak.

garria dela esan digu eskolako arduradunetako batek, Virginiak. 200 pertsonen aurrean sudur gorria jantzi eta norbere buruari barre egitera ateratzen dira eskenatokira. Saio hauetan, den dena inprobisatu egiten da beti.

Honetaz gain, hiru espektakulu prestatuta dauzka Oihulari Klown taldeak "Alfonbra majikoa", "Todo bajo Klowntrot" eta "Modelo klowntrapublicitaria" eta beste hiru ari dira prestatzen laster estreinatzeko. Taldea, ordea, animazio lanagatik da ezaguna. Klik-klown deitzen zaio animazio lan honi eta honetan datza: Konferentzia serioetan, taldeko kideak ikusle goaren arte-

---

**Diskurtsoa umorearen bitartez parodiatzen da eta giroa erabat aldatzen da.**

---

an jartzen dira konferentzia entzuteko. Bukaeran, klown-aren jantziak jartzen dituzte eta konferentzian esandako guztia zalantzan jartzen dute, izkutuko emozioak azaleratzen dituzte, garrantzia ez duenari garrantzia ematen zaio eta batzuetan konferentziantekak parodiatzen dituzte. Diskurtsoa umorearen bitartez parodiatzen da eta giroa erabat aldatzen da.

# Hil eta gero lurperatu ala erre?

**Nahiz eta heriotza bizitzatik at egon, orain bizidun bezala, atseginagoa zait pentsatzea, goizago edo beranduago, momentua heltzean, naturaren parte izango naizela, nire gorputzaren hondakinak naturaren erdian sakabanatzeaz, askatasuna senti arazten didan naturaren barnean.**



**B**estalde, higienikoagoa eta bukaera politagoa dela iruditzen zait, eta bizitzaren azken aukera hau, denen eskubidea denez, dudarik gabe inzinerazioa eta hautsen sakabanaketa iruditzen zait egokiena.

Horrela, neuk aukeratutako mendi bateko txoko atsegin batean, neuk maitatutako pertsonekin nahasia egongo bait naiz, horrela, nire gorpuaren hondaki-

netatik ere, bizia hasiko baita, eta beti ere, nire lagun eta senitartekoak, errazago etorriko baitira nitaz oroitzena; denen atseginetara den toki batera.

Beraz, argi dago, ez nagoela hilerriko txoko hotz ilun eta ezezagun batean bukatzeko prest, nahiago bait det bizizari beste bukaera bat ematea.

**Alazne Ezkurra**



**Gaia ez da ematen duen bezain erreza iritzia ematen hasten zarenean, baina aleginduko naiz galderari erantzuten.**

**E**sango nuke ez dugula inork hiltzerik nahi, baina une hori denoi iritsiko zaigunez, behar bada ez dago gaizki "lurretik zatoz eta lurrera zoaz" esaten zaigun esaldi hori kontutan izatea.

Horri lotuta edo, esan liteke lurrari gure izatea zor bage-nio bezala, hiltzean berriro lurrera itzultzen gaituztela, eta beharbada ez da hain burutapen eskaxa.

Ohituraz, lurperatu egin izan ditugu gure hildakoak, baina orain gure kanposantutak txiki geratu diranez, porlanez

egindako kasilletan sartzen hasi gure hildakoak edo erreketak bidez kutxatxoetan gorde. Beraz, "lurperatze" sentidu hori ere galtzen ari gera.

Ni herri txiki batean jaioa naizenez eta nork bere herriaren zale izatearen gogoz edo, inoiz burura etorri izan zait nere herriko kanposantu txiki hartan lurperatu izateko nahia edo, nola nahi ere, ez nago erretzearen aurka. Uste dut biak direla baliagarriak.

**Ane Goikoetxea**

**UDA BERRI**  
**ELGOIBAR**

**GURBIL** *Jatetxea*  
- Pintxoak - Eguneroko menua  
- Karta - Plater konbinatuak  
**Orain probatu etxean egindako PIZZAK**  
Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

**Fotero**  
**OKINDEGIÀ**  
**OPILDEGIÀ**  
San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35



# Hil eta gero lurperatu ala erre?



**Xabier Eizagirre**  
23 urte, langabetua

Behin hil eta gero ez zara ezertaz enteratzen. Horregatik, enterratzea hobe iruditzen zait. Inzineratzea ez zait gustatzen.



**Maria Luisa Sangrador**  
45 urte, etxekoandrea

Enterrau pentsatzen dot. Ohitxuta gaozena da. Ikusi doguna da eta... Egixa esan, ez naiz gauza hoietan pentsatzen jarri, baina enterrau.



**Lino Vadillo**  
54 urte, langabetua

Nik nahiago dut inzineratzea. Etxean agian ez didate kasurik egingo baina nik nahiago dut errauts egin eta kitto.




**Lordi Txurruka**  
19 urte, ikaslea

Nik nahixao dot erretzia. Nahixao dot erre eta hautsak gero hortik botatzia. Enterratziara oso erlijiosua da eta ez jat gustatzen.



**Maria Jesus Igartua**  
31 urte, etxekoandrea

Nik enterratu. Enterratzen dozunian, badakizu han dauala eta bisitxia itxen dozu. Erretzen darian eta hautsak bota, haura ez dao inun.



**Mirari Irazabalbeitia**  
26 urte, etxekoandrea

Nik neretzako nahixao dot erretzia. Askoz be garbixaua da, higienikuaua. Baina bakoitzak hartu bihar dau erabaki hori.




**UTZAK**

*Zure eguneroko taberna*

*Solariuma zabalik tabernako ordutegian*

**San Roke 28**

**☎ 74 34 11**



## Komiki lehiaketa

Kokoe komiki elkarteak komiki lehiaketa antolatu du. Gaia librea izango da eta edozein teknikan egin ahal izango da lana. Formatoa 18x24 zmtakoa izango da, edo proportzionala; behar bezala rotulatuta egongo da lana, eta 4 orrialdeko luzera izango du.

Lanak ezingo du autorearen izena agerian eraman. Izena beste sobre baten barruan joan beharko da, agerian lema edo izenburua izan beharko duelarik.

Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira azaroaren 20an beranduenez. Irabazleak 90.000 pezeta jasoko ditu eta bigarrenak 60.000 pezeta. Herriko hoberenarentzat, 25.000 pezetako saria egongo da eta 18 urtetik beherako lan hoberenarentzat, beste 25.000 pezetako saria.

## Hezkuntza Okupazionalako ikastaroak


Durango prestakuntza eta lanbiderako bulegoak, Sartuk, Pladur Instalatzaile, Garbiketa Industrialari eta Pintura Industrialari buruzko hiru ikastaro antolatu ditu aurtengo ikasturterako. Pladur Instalatzaile ikastaroak 150 ordutako iraupena izango du eta azaroaren 15ean hasi eta abenduaren 22an bukatuko da. Egunero sei ordu klase emango dira eta izena emateko azken eguna azaroaren 4a izango da. Garbiketa Industrialari buruzko ikastaroa urtarrilean hasiko da eta izena emateko data abenduaren 1etik 22ra bitartean izango da. Pintura Industrialari buruzko ikastaroa martxoan hasiko da eta izena emateko epea datorren urtarrilaren 17an hasiko da. Ikastaro guztiak Durangon izango dira eta izena emateko (94) 620 04 49 ra deitu.

## Bi urteko haurrentzako gela zabaldu du Herri Eskolak



**Herri** Eskola ikastetxeak bi urteko haurren gela jarri du martxan aurtengoa. Inaugurazio egunean, hilak 22, Gipuzkoako Hezkuntz-ordezkarria, Alfonso Gonzalez, hasera ofiziala ematen egon zen guraso eta bertako irakasle batzuekin eta zentruko zuzendaria den Ana Maiztegiarekin. Gela, bi urteko haurtxoen garapen osoa bultzatu eta haur erdaldunak euskaratze prozesuan bideratzeko egoki prestatu dago. Sesta botatzeko oheak jarri dira eta, jostailu mordo bat eta etxe handi bat txirristada eta guzti, haurrek jolas

dezaten. Honetaz gain, gelak psikomotrizitatea, nortasuna, hizkuntza, inteligentzia etb. lantzeko espazioa, garbiketarako, atsedenerako eta jatorduetarako txokoa du. Herri Eskolako bi urteko gela honetan 13 haur egongo dira aurtengo ikasturtean. Ordutegia nahiko irekia izango da, goizeko 9etatik arratsaldeko 4etara. Garraioa dohainik izango dute haurrek, eta bazkariaren prezioa 200 pezetakoa izango da eguneko. Hileroko kuota 2.000 pezetakoa izango da eta begirale gisa irakasle eta ATS bat egongo dira.



**Astelehenean,** azaroak 1, Santu Guztien eguna ospatuko dugu urtero bezala. Kanposantura bisita eginez, gure hildakoez oroitzeko eguna izan ohi da. Egun honetan lora denda batzuk zabalik egongo dira astelehen goizez eta gogoratu, Kanposantuaren neguko ordutegia goizeko 9etatik iluntzeko 8etara bitartekoa izango dela.

## Drogomenkotasunei buruzko jardunaldiak


Drogomenkotasunen Prebentziorako Elkarteak, Errotatxok, Askagintza erakundearekin batera, aisialdiari eta prebentzioari buruzko jardunaldiak antolatu ditu datorren azaroaren 13tik 20ra bitartean. Kanpaina hau 16 eta 22 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta, helburua, gazteekin batera azterketa sakona egitea da, zenbait alternatiba bilatzeko asmoarekin.

Lehenik eta behin, Errotatxok, gazteek drogomenkotasunari buruz dituzten ikuspuntuak ezagutzeko lan taldeak osatuko ditu. Bigarrenik, herriko gazteen kasuan drogen arazoa aztertzen saiatuko da eta, azkenik, kontsumoaren ordezkotzat alternatibak bilatuko dituzte prebentziorako iharduerak promozionatzeko. Droga kontsumoak herriko gazteen artean duen garrantzia dela eta antolatu ditu jardunaldiak Errotatxo elkarteak.

## IMH itsasuntzientzako metereologia sistema ikertzen ari da

IMH, Alemaniako, Italiako eta Dinamarkako zenbait zentzuekin batera, itsasuntzientzako metereologia estazio bat egiteko proiektua ikertzen ari da. Untzien nabigazio sisteman prozesu informatiko bat sartzean datza proiektua. Honela, itsasoari eta eguraldiari buruz jasotzen diren datuei esker, untxiak zonalde jakin batean topatuko duen eguraldiaren berri izan daiteke. Estazio metereologikoak higrometroa, termometroa, publiometroa, anemometroa, untxiaren kokapena adierazteko tresna, haizearen norabidea ezagutzeko tresna eta *Meteosat* satelitearen seinalea jasotzeko aparailua izango ditu. IMHk *Meteosat*-en eta antenaren errezepzio sisteman lan egingo du.

# Euskadiko I. Limousin Ganadu Sariketa eta Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa Elgoibarren



**Larunbatean**, hilak 30, Euskadiko I. "Limousin" arrazako ganadu sariketa izango da. Limousin sariketa egiten deneko lehendabiziko aldia da honoko hau eta Elgoibarren ospatzeak gainera, badu bere zergatia. Elgoibarren feriak egiteko tradizioa 200 urtekoa baino zaharragoa dela kontutan izanda, Limousin Federaziokoek ez dute zalantzarik izan Elgoibar sariketaren gune izendatzerako orduan.

Egitarauari dagokionean, goizeko 8,30etan ganadua etorriko da herrira, eta 9etarako jendeak ikusteko prest egongo da ganadua Plaza txikian. 10etatik aurrera ganaduaren kalifikazioa egingo da eta 2etan sari banaketa izango da Plaza handian. Ohienez, saritutako ganaduak Plaza txikitik Plaza handirainoko desfilea egingo du.

Ganadua, adinaren arabera, sekzioka banatuta egongo da. Idiskoetan, 3 sekzio egongo dira eta sekzio bakoitzetik 4 buru. Urrixa edo emeen kasuan, 6 sekzio, eta sekzio bakoitzetik 14 bat buru izango dira. Guztira 90 abere buru egongo dira ikusgai.

Dena den, litekeena da zenbait txekor eta hazitarako idisko salgai egotea.

Lurralde bakoitzetik zazpi edo zortzi ganaduzale etorriko dira eta buru kopuruari dagokionean, gehienak Gipuzkoatik ekarritakoak izango dira, 40 guztira, Bizkaitik 30 eta 20 Arabatik.

Emeen atalean, sekzio bakoitzeko lehenak 30.000 pezeta eta saria jasoko ditu, bigarrenak 20.000 eta hirugarrenak 10.000. Idiskoetan sekzio bakoitzeko lehenak bakarrik izango du saria, 30.000 pezeta hain zuzen.

### Gipuzkoako aizkolari txapelketa

Arratsaldean, berriz, jai giroari jarraiki, Gipuzkoako aizkolari txapelketa ospatuko da Kiroldegian. Elgoibarren Euskadiko aizkolari onenak ikusiko ditugu lanean: Arrospeide, Olasagasti, Peñagarikano, Mugerza, Erasun eta Elorriaga hain zuzen. Sariak aizkolari guztiek jasoko dituzte. Lehenak 150.000 pezeta eramango ditu, bigarrenak 140.000, hirugarrenak, 130.000, laugarrenak, 120.000, bosgarrenak 110.000 eta seigarrenak 100.000 pezeta.

**"Beldurra ez, baina errespetu handia bai"**

**Badira lau urte Elgoibarko kanposantuaz Udaleko brigadakoak arduratzen direla. Gehienetan, bertako eginbeharrak Eulogio Astigarragak burutzen ditu. Hasiera batean zaila izan**

**bazen ere orain edozein lan egiteko inongo ardurarik ez duela esan du. "Amesti" baserrian jaio eta Mendaron bizi den elgoibartar honek kanposantua beste ikuspegi batetik erakutsi digu.**

**-Noiz eta nola hasi zinen honetan?**


-Lehen zegoen enterratzailea egun batean kanpora joan behar zela eta, nik bere lana egingo niola esan nion. Gero gizon hau jubilatu egin zen eta orain nik segitzen diot. Hala ere, ni brigadako naiz, ez nago enteradore ofizial bezala. Gehienbat neu etortzen naiz kanposantura, baina nik ezin dudanean beste batzuk etortzen dira. Lan honetan duela lau urte hasi nintzen.

**-Zer eginbehar izaten dituzu hilerrian?**

-Guk kanposantuan enterratu bakarrak egiten dugu, baina brigadakoak ere banaizenez brigadari tokatzen zaizkion lanak egiten ditugu: garbitu, bedarra moztu...

**-Hasieran zer ematen zizun keriza gehiago?**

-Ba, gorputzak ateratzeak. Sartzeak baino gorputzak ateratzeak inpresio gehiago ematen du eta desagradableagoa da. Baina gaur egun ez daukat inongo ardurarik edozein lan egiteko, azkenean ohitu egiten



**"Ez daukat inongo ardurarik edozein lan egiteko; azkenean ohitu egiten zara."**

zara.

**-Lan honek heriotzari buruz zeneukan ikuskerak aldarazi al dizu?**

-Bai, zeharo. Gogoratzen naiz hamabi urte nituela amama hil zenean, bi egun etxetik kanpora pasa nituen ez nuelako heriotzarekin ezer jakin nahi. Orain, oster, ikusten duzu non nabilen; azkenerako ohitu egiten zara eta normaltasunez eramaten duzu.

**-Santu Guztien egu-**

**nean normalean baino bisitari gehiago izango dira. Zer suposatzen du honek zuretzat?**

-Bai. Normalian kanposantura urtean zehar etortzen garenean bedarra ebakitzera izaten da. Baina sasoi honetan, baztarrak txukuntzen normalean baino hiru aldiz lan gehiago egiten dugu. Gauza guztiekin gertatzen den bezala baztarrak txukundu, zuritu, garbitu egin behar dira, dena pre-

paratuz.

**-Lanorduak nola antolatzen dituzue edo zeren arabera dago?**

-Guk brigadan lanordu finko batzuk ditugu, baina entierro bat dagoenean dirua eta lanordu normaletik kentzeko bi ordu ematen dizkigute.

**-Kanposantua herrietako lekurik triste eta serioenak direla uste al duzu?**

-Neretzat bai. Neri kanposantua errespetu handia sorrarazten dit eta gehiago gauean bada, bildurra ez baina errespetu handi bat bai. Orain, lehengo enkargatuak eskatuta, argi gehiago dago eta hobeto. Txarrenek hiru hilabete izaten dira: urria, azaroa eta Abendua; hortik aurrera beste gauza bat da.


**-Ba al dakizu Elgoibarko kanposantuan gertaturiko istorio edo anekdotarik?**

-Nik daramazkidan lau urte hauetan ezer arraro gutxi ikusi dut kanposantuan. Bestalde, neri ez dit inork kanposantuko istoriorik kontatu.

**Belen Arrizabalaga**

## Alfonso Muñoz

### *Txanpi*



- Gustatu zaizun liburu bat? - Ez dut bat bera ere irakurri.
- Zinea ala hondartza? - Hondartza.
- Erreza al da irratiz ligatzea?  
- Behin bakarrik lortu dut, Zazpikiko programa baten bidez...  
Ermuko neska batzuk...
- Amets bat? - Hawaira joatea.
- Amets erotikorik? - Azken boladan ez.
- Non jarriko zenuke Gaztetxe bat? - Herriko lekurik hoberenean... ezkina guztietan.
- Ilargian biziko zinake? - Zergatik ez! Denbora gehiena ilargian pasatzen dugu...
- Trikitixa ala flamenkoa? - Trikitixa.
- Ba al duzu lagunik Ertzantzan? - Mogollon! (barreak).
- Athletic, Osasuna ala Erreala? - Athletic, gaur egun Alethic.
- Inoiz gelditu al zara tabernaren batetan lo? - Bai, askotan!
- Zer afaldu duzu azken zapatuan? - Ezer ere ez. Aste bukaeretan ez afaririk, ez bazkaririk... gero, astelehenetan, jaterakoan, kristoren "pirriler"!
- Gaupasa eta gero lo, ala lo eta gero gaupasa? - Lo eta gero gaupasa. Neri gaupasa doakit, lo egitea ez.
- Gehiago hazteko esperantzarik? - Bat ere ez. krestia bai!
- Zer koloretako kantzontziloak dituzu jantzita? - Txuriak uste dut. Marradunak eta domino fitxekin.
- Guapoa zara? - Ez dakit; ez dakit zer den guapoa edo zatarra izatea.
- Jendeak zu "Arkauz" deitzeak zer? - Ajolako lidake.
- Prest hurrengo inauterietako mozorroa? - Beti berdina eruatzen det; guztiz prest dago.
- Tabernaria izanez gero, nori aterako zenioke trago bat dohainik? -Nere zaharrari.
- Garagardo marka ez-ohizko bat? - "Estrella dorada".
- Bat gehi bat? - Bi
- 69ren erroa? - Puta idearik ere ez.

Todor Calvo

## BERTSOTAN

### LURPERATU ALA ERRE?

**Doinua:** Mendian gora haritza

Serio egin galdera  
ez da guretzat kaltera  
hil eta gero nora ote goaz  
gora edo behera  
orain artean lurpera  
zer ote degu aurrera (Bis)  
txarrena hau da norberak ezin  
duela aukera

Pentsatzen jarri buruak  
badira hiru munduan  
behartsu, ertain eta aberats  
hirurak eruak  
hiltzen direnak morduak  
gizartetik baztertuak (Bis)  
kale hertzean usteltzen dira  
beraien gorpuak

Josu Guenetxea

**GORRÓN**  
*dekorazioa*  
San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

  
**EGAÑA**  
kotxe  
konponketak  
P. Muguruza 18. ☎ 74 01 98

**AITZ BIZKAR**  
— Taberna —  
Errosario, 20.

## DV txapelketa Ikastolako frontoian

Datorren azaroaren 7an Urien-Pradera bikote bizkaitarrak Errioxako Arroyo-Dani bikotearen aurka jokatu du ikastolako frontoian gaeko 12etatik aurrera. Partidua ETBk, bere lehen katetik emango du zuzenean. DV txapelketan afizionatu mailako bikoterik hoberenek jokatu dute. Izan ere, txapelketa honetan aritzen diren pilotariak beste txapelketa ezagunago batzuetan jokatzeko aukera izaten dute. Emanaldiaren haseran, herriaren historiari buruzko alderdi adierazgarriak erakutsiko dira eta "Lagunak" pilota eskolakoek partidu batekin ikuskizunari hasera emango diote.

## Garaipena eskubaloiko kadete eta jubenilentzat

Pasa den asteburuan jokatuak partiduetan garaile atera ziren C.D. Elgoibar eskubaloiko taldeko bai kadete eta bai jubenilak. Kadeteak 18-9 ko emaitzaz bukatu zuten Tolosaren kontrako partidua. Jubenilek, berriz, 37-12ko emaitza lortu zuten Beasainen aurkako partiduan. Hurrengo partidua Pasaian izango dute.

Nesken taldeak, berriz, ez zuen zorterik izan. Hauek denboraldiko lehen partidua jokatu zuten Zarautzen eta, norgehiagoka 13-11 goletara bukatu zen zarautzarren alde. Hurrengo partidua igandean izango da, eguerdiko 12etan Debako kiroldegian Mutrikuko *Jauja* ren kontra.



Angel Garcia:

## "Txirrindularitzan ez dago lortu ezin daitekeen gauzarik"

**-Noiztik zabilta txirrindularitzan?** -Sei urte. Auzoko lagun batek sartu ninduen. Aitari ez zitzaion gehiegi gustatzen kirol gogorra delako, oso sakrifikatua.

**-Eta hain sakrifikatua dela iruditzen al zaizu orain?** -Bai, oso. Batez ere orain nabilen kategorian, afizionatuetan. Jubeniletatik afizionatuetara urrats handia dago; gastu aldetik diferentzia oso nabarmena da.

**-Afizionatuetan, zein lasterketatant korrituko duzu aurten?** -Urtarrilean hasten da denboraldia eta lasterketa gehienak kanpoan izaten dira, haseran Nafarroa aldean. Aurten, soldaduzka amaitu berri daukat eta ez naiz lasterketa askotan ibiliko. Urruti xamar izaten dira lasterketak eta nahi eta nahi ez, kotxearekin ibili behar da atzera eta aurrera. Eta horrek, noski, gastu handiak sortarazten ditu. Ni talderik gabe nago eta gastu guztiak poltsikotik ordaindu behar ditut.

**-Datorren urtean, elgoibartar gehiago egongo da afizionatuetan. Egoera hobetu daitekeela uste al duzu?** -Elgoibarren ez dute afizionatu talderik sortuko. Afizionatuetara pasako diren mutikoak Durangoko etxe batek hartu ditu. Gainera, adin horretan soldaduzkak ez



bada, ikasketen arazoak harrapatzen zaitu, eta dudarik gabe, zerbait lortu nahi bada, aukera bat egin beharra dago.

**-Txirrindularitzan helmugarik jarri al diozu zeure buruari?** -Ez. Lasterketetan, karrera amaitzera ateraten naiz, baina aurretik garaipena lortu dezakedala iruditzen zait. Txirrindularitzan ez dago lortu ezin daitekeen gauzarik. Gero, lasterketan, odola burutik jeisten zaizunean, den dena lagatzea bururatzen zaizu. Karrera hasi aurretik, berriz, gauzak bestelakoak iruditzen zaizkizu.

**-Bizikleta, mendirako ala errepidean ibiltzeko?** -Mendian ibiltzea polita da. Errepidean hildako asko egon da eta jendeak kontu gehiagorekin ibili beharko luke.

- Adina: 20.
- Aldapak ala bide lauak? Lauan hobeto.
- Hotza ala beroarekin hobeto? Ez hotza ez beroarekin.
- Beste kirolrik? Igeriketa.

**Iraegui**  
ERROTULAZIOA  
☎ 74 39 52  
San Antolin 74 37 06

PUB  
**LAJANTE**  
elgoibar

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA  
*Eskatu eguna eta ordua*  
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

**BOUTIQUE DEL PAN**  
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

# Hasi da haurrentzako igeriketa kanpaina

Orain dela bost bat urtetik, herriko hurrek igerian egiten ikasteko aukera dute Aldundiak antolatzen duen ikastaro batzuei esker. Kanpaina honekin, hurrek bederatzi urte betetzen dituztenerako, gutxienez, bi estilo diferentetan igeri egiten jakingo dute.

**Gipuzkoako** Foru Aldundiko Kirol sailak igeriketa kanpaina antolatzen du urtero OHOk lehenengo mailatik laugarren mailara bitarteko haurrentzat. Kanpaina honi esker, Elgoibarko ikastetxeetako 6 eta 9 urte bitarteko hurrek igeri egiten ikasteko aukera izango dute. Herriko ikastetxeak, Udalaren laguntzarekin, duela bost bat urte hasi ziren igeriketa kanpainan parte hartzen. Aurten, 362 ikasle arituko dira kanpainan. Haurrak talde murriztuetan banatuko dira, eta talde bakoitzak 20 egun segidan izango ditu igerian ikasteko.

Aurtengo igeriketa kanpaina honetan Ikastolako 205 haur, Herri



➔ Bederatzi urteko haur guztiak igeri egiten jakingo dute kanpainari esker.

Eskolako 64 eta Pilar ikastetxeko 93 haur arituko dira. Herriko ikasleez gain, Mendaro eta Debako ikastetxetatik ere etorriko dira Kiroldegiko igerilekura igeri egiten ikastera.

Kanpainak Udalaren diru-laguntza jasoko du eta helburua, lau urteren buruan, hau da, OHOk lehen mailan hasi eta laugarren maila burutzen dutenerako, hurrek igeri egiten jakitea da.

Lehendabizi, jokuen eta antzerako bidez, haurrak lehen harremana

izango dute urarekin. Ondoren, oreka, koordinazioa eta arnasketa landuko dute flotazioaren bitartez, eta, gero, igeri egiteko modu ezberdinak irakatsiko zaizkie. Igeriketa kanpaina honen barruan, krol eta bizkarrez igeri egiteko moduak irakasten dira eta espezializazioa igeriketa eskolan burutzen da. Honetan, lau estiloak, krol, "braza", bizkarra eta "mariposa" perfektionatzen dira eta txapelketetan parte hartzen hasten dira.

## NAVA INPRIMATEGIA

Inpresoreak  
Inpresoreak  
Inpresoreak  
Inpresoreak  
Inpresoreak  
Inpresoreak

Edozein lan mota  
inprimatzeko dugu

Santa Ana, 44. ELGOIBAR

☎ 74 44 51





# Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkartea

**Txankakua elkartea, herriko merkatarien defentsarako sortu zen 1992. urteko maiatzean.**

**Hasierako bazkideak gutxi baziren ere gaur egun 73 bazkide ditu elkartea.**

**Hasera haseratik beraien eginbeharririk garantzitsuenetarikoa herriaren bizitza maila hobetzearren lan egitea izan da.**



OSTARKU

Asanblada Orokorra egin zuten egunean ateratako argazkia.

## **Txankakua,**

elkarteko bazkideen interes sozioekonomikoen sustapen eta defentsarako sortu zen eta beraien arteko elkarlaguntza bultzatzeko ere bai. Merkatari txikiaren egoera hobetzea eta horrela, bezeroari, ahalik eta zerbitzurik hoberena eskaintzea litzateke helburu nagusia. Elkartea sortu zenetik, lehen hilebeteak elkartea legalizatzen eta gaiak, eta asmoak zehazten eman zituzten. Baita izena aukeratu ere eta logotipo lehiaketa egin zuten Elgoibar mailan.

Elkartea jaio zenetik, herriari zein bertako merkatariari zuzendutako zenbait ekintza burutu ziren. Iazko irailean, eskaparatismo, aperitibo eta reposteria ikastaroak antolatu zituzten Lanbide Heziketarako Institutuaren laguntzarekin. Hala-

ber, gaurkotasun handiko gaiari buruzko bazkideei zuzenduriko hitzaldi informatiboak antolatu zituzten. Merkatari Ganbarako kide batek "Zeinu, indize eta modulu"ei buruzko hitzaldia eman zuen eta, Elkargi elkarteko kide bat, bere elkarteari buruzko azalpenak ematen izan zen, eztabaida interesgarri batekin bukatu zelarik.

### **Aurtengo**

**Gabonetarako zozketa bat antolatzen ari dira eta 40.000 pezetako 6 sari banatuko dituzte.**

Debegesa eta Deba Beheko merkatari elkarrekin batera, "Eros talde"en, "Frankizia" eta "Elkarkidetze"ari buruzko jardunaldiak antolatu

zituzten zonaldeko merkatariarentzat. Burdeos-en ere izan ziren bertako merkatari eta denden egoera aztertzen.

Herriari begira, iaz bi zozketa antolatu zituzten, bata Gabonetakoa eta, bestea udaberri-udakoa. Gabonetako zozketan, 25.000 pezetako 8 sari banatu ziren eta udaberri-udakoan 35.000 pezetako 6 sari. Aurtengo Gabonetarako ere, beste zozketa bat antolatzen ari dira eta 40.000 pezetako 6 sari banatuko dira.

Gipuzkoako merkatarien elkarteko (ACOGI) fundatzaile dira eta herri mailan antolatu diren hainbat ekintzatan lagundu dute, hala eskatu izan zaienean.

Aipatutakoaz gain, Deba Beheko Mankomunitatearekin eta Udalarekin batera, herriaren gar-

bitasunerako kanpaina antolatzen ari dira. Horrelako ekintzekin herritarren bizitza maila hobetzen saiatuko dira.

Barne funtzionamenduari dagokionean, astero biltzen den 10 pertsonako zuzendaritza taldea dago. Hilean behin ACOGIrenkin biltzen dira eta urtean behin, kide guztiek Asanblada Orokorra egiten dute. Halaber, Txankakua elkartea, oraindik bazkide egin ez diren merkatariak bazkide egitera animatu nahi ditu.

### **FITXA TEKNIKOA**

**Sorrera urtea:** 1992  
**Bazkide kopurua:** 73  
**Presidentea:**  
 Mari Jose Estibariz  
**Iharduera:** Merkatari-  
 ritza eta Zerbitzuak  
**Biltzeko lokala:**  
 Kultur Etxea



# Euskal grabatzaile famatuen erakusketa Kultur Etxean

**Egur** arte lantegiak euskal artista famatuen grabatu erakusketa antolatu du. Erakusketa ostiralean hasi, hilaren 29an, eta azaroaren 14ra arte luzatuko da. Bertan, zortzi euskal artista ezagunen artelanak ikusi ahal izango dira. Erakusketan parte hartuko duten artisten izenak hauexek dira: Gonzalo Txillida, Eduardo Txillida, Javier Herrero, Ramos Uranga, Fernando Beorlegi, Pedro Txillida, Baroja Collet eta Ruiz de Eguino. Bereizgarri gisa, aipatu, honako hau Eduardo Txillida, bere anaia eta semea, erakusketa baten biltzen direneko lehen aldia dela.

Artelanak ikusgai egongo dira Kultur Etxeko erakustaretoan arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean. Jaiegunetako ordutegia: 12etatik 14etara.



→ Fernando Beorlegi grabatzailea, Carlos Serrano aholkularia erdian, eta Javier Herrero grabatzailea.

## Larunbata, igande eta astelehenean egongo da zinea

Zine emanaldiak Udaletxeko Biltzar Aretoan astebukaera honetako larunbat, igande eta astelehenean izango direla ziurtatu du Ongarri Zine Klubak. Kultura Batzordearekin lortutako akordioari esker emanaldi bat izango da larunbatean, hilak 30, iluntzeko 7,30etan eta bi emanaldi igande eta astelehenean, hilak 31 eta azaroak 1, arratsaldeko 5etan eta 7,30etan.

Hiru egunetan pelikula berdina proiektatuko da, "Daniel El Travieso" eta sarrera 300 pezetatakoa izango da gutzientzat. Ongarrik puntualitatea eskatzen du, emanaldia hasi eta gero ez baitute Udaletxeko Biltzar aretoan sartzen lagako. Debekatuta egongo da jatea, edatea eta erretzea.

Minizinearen asmoa, Herriko Antzokiko obrak bukatu arte irautea da baina lehendabizi, herrian izango duen harrera ikusi behar. Ildo honetatik, Ongarri Zine Klubak bizkortasuna eskatzen du obrak lehenbaitlehen bukatu daitezen.

## ALTZARIAK-DEKORAZIOA

# Triondo

*Etxean gustura egon zaitezen*

Santa Ana, 4 eta 6  
Tel: 74 12 34  
ELGOIBAR

**29 Ostirala**

**19,00-21,00 GRABATU  
ERAKUSKETA**

ARTISTAK: Gonzalo Txillida, Javier Herrero, Eduardo Txillida, Ramos Uranga, Fernando Beorlegui, Pedro Txillida, Baroja Collet, Ruiz de Eguino.  
Azaroaren 14 arte.

**30 Larunbata**

**9,00 I. LIMOUSIN GANADU  
TXAPELKETA**

Antolatzaileak: Elgoibarko Udala, Debemen, Kalamua elkar-  
tea eta ELIFE

**10,30 FUTBOLA**

C. D. Elgoibar-Antiguo (Infantilak)  
Tokia: Mintxeta

**12,00 FUTBOLA**

C. D. Elgoibar-Ostadar (Neskak)  
Tokia: Mintxeta

**16,00 TELERADIESTESIA  
IKASTAROA**

Tokia: Kultur Etxea

**16,00 FUTBOLA**

C. D. Elgoibar-Beti ona (Jubenilak)  
Tokia: Mintxeta

**16,30 GAZTETXEEN MANI-  
FESTAZIORAKO  
AUTOBUSA**

Irteera: Maalatik.  
Manifestazioa: Azpetian.

**18,00 GIPUZKOAKO AIZKO-  
LARI TXAPELKETA**

Tokia: Kiroldegia  
Antolatzaileak: Udala eta Kala-  
mua elkarte

**18,00 FUTBOLA**

Urki- Burumendi (Jubenilak))  
Tokia: Mintxeta

**19,30 ZINEA**

"Daniel el travieso" EEBB (1993).  
Zuzendaria: Nick Castel.  
Aktoreak: Mason Gamble, Walter  
Matthau.

Tokia: Udaletxeko biltzar aretoa.  
Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

**31 Igandea**

**10,00 FUTBOLA**

Urki- Segura (Jubenilak)  
Tokia: Mintxeta

**12,00 FUTBOLA**

Eibartarrak-Aretxabaleta (Jubenilak)  
Tokia: Mintxeta

**17,00 eta 19,30 ZINEA**

"Daniel el travieso" EEBB (1993).

**1 Astelehena**

**16,30 FUTBOLA**

Haundi-Aurrera Gasteiz  
Tokia: Mintxeta

**17,00 eta 19,30 ZINEA**

"Daniel el travieso" EEBB (1993).

**4 Osteguna**

**19,00 SOZIOLINGUISTIKA  
IKASTAROA**

Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra



**"Daniel El Travieso"**

Telebistako marrazki bizidunen seriearen egokitzapena da zinean. Pelikula hau espero baino kaxkarragoa izan da kritikaren ustez; bihurtekeria ugari baina argumentuak jarraipenik ez du. Walter Matthau aktoreak Wilson izeneko marrazki bizidunaren pertsonaiari ematen dio bizitza. Txistez eta pasadizu komikoez betetako pelikula da.



**Artegi LEHIAKETA**

**AZAROKO GALDERA:** Elgoibarko Elkarte ezagun batek bere 50. urteurrena ospatzen du aurten. Ba al dakizu zein elkarteri buruz ari garen?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Azaroak 29an **SAMSUNG** Mikrouhin labe bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzuenon artean. (Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

**Etxebizitzak**

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu. **Tel. 74 09 44**

Etxe bat salduko nuke. 100 m2 eta gela guztiak kanpora ematen dute. Urasandin. **74 42 65 Amaia**

**Lana**

Frantseseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantsesa naiz eta tituloa dut. Emakumeekin mintzamen lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - Setara bitartean. **74 04 59**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak egiteko prest nago. **Ainhua 74 16 89**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

Marrazketa Teknikoan arazoak baldin badituzu klase partikularrak emateko prest nago. EFP eta BTlko ikasleei **Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira**

O.H.O.ko klase partikularrak emateko prest nago. Euskeraz badakit. **Ainhua 74 36 39 /05 33**

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz. **74 13 11 Javier**

Haur bat zaintzeko prest nago. **Lorea 74 28 53**

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. Euskeraz eta erderaz. **74 23 01 Jokin**

**Salerosketak**

Botadun patin pare bat saltzen dut. Paraleluak. 36 zenbakia. **Koldo:74 12 85**

San Antolin auzoan, taberna ondoan, lokala daukat alokatzeko. **Tel.:74 17 95**

Sukaldeko altzariak salgai. XEY markakoak. Erabili gabeak. Prezio ezinhobea. **Amaia Tel.:74 09 23**

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko nuke. Citroen C 15 furgoneta edo antzeko zerbait. Diesela. **Deitu: 74 36 34**

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km. **Tel. 74 28 32**

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu. **74 39 89 Rufina**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

Ford fiesta XR 2 salgai. SS-5581-V. Oso ondo zainduta. **Deitu 74 13 46**

Garaje itxi bat saltzen dut. Santa Ana 46an. 14 m2. **Tel. 74 28 32**

Karrerretarako bizikleta bat salgai. Berri-berria. Mendiz markakoa. **Tel. 74 10 93**

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, pletina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta. **Deitu 74 03 55 Iñigo**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mai: 74 21 35 / 22 10**

**Kontaktuak**

Tarta bat betetzeko limoizko krema nola egiten den jakin nahi nuke.. Idatzi aldizkarira edo bestela deitu telefonoz **74 02 90 Agapita**. Mila esker.

**Urriak 30 FERIXA EGUNA**

**I. Euskadiko Limousin Sariketa**

**Goizeko 9etatik 3ak arte PLAZA TXIKIAN**



**LAGUNTZAILEAK:**

EUSKO JAURLARITZA,  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA,  
GIPUZKOAKO KUTXA.

**ANTOLATZAILEAK:**

ELGOIBARKO UDALA, DEBEMEN,  
KALAMUA ELKARTEA, ELIFE.

**Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa**

**Arratsaldeko Getan KIROLDEGIAN**

**PARTAIDEAK:**

Arrospide  
Olasagasti  
Peñagarikano  
Mugerza  
Erasun  
Elorriaga



**ANTOLATZAILEAK:** Elgoibarko Udala eta Kalamua Elkartea

# HYUNDAI

## AUTOMOBILAK

**3 URTEKO GARANTIA**



# HYUNDAI

HANDIA DEN ZERBAIT  
BULTZAKA ARI ZAIZU

**HYUNDAI AUTOMOBILAK:**

HYUNDAI-COUPE \* HYUNDAI LANTRA

HYUNDAI SONATA \* HYUNDAI PONY

Ordezkarri Ofiziala: **MENDARO AUTOAK, S.A.**

**ELGOIBAR** - Telefona (943) 74 32 00

**MENDARO** - Telefona (943) 75 50 72